

Liburutegi erraldoia

'BOOKCROSSING'-A BULTZATZEKO EKIMENA GASTEIZEN. Udalak, Eroskik eta El Boulevard saltoki gunek mila liburu inguru 'askatuko' dituzte urtea amaitu arte, %30 euskaraz

LUIS KARLOS GARCIA - GASTEIZ

Parkeko aulki batean edo zuhaitz bateko enborrean sarturik, autobus geltokian, kutxa automatikoan edo tabernako barran. Edonon topa daitezke liburuak, Gasteizen, Euskal Herri osoan inoiz egindako *bookcrossing* ekimenik handienetako batean. Udalak antolatu du, El Boulevard saltoki gunearekin eta Eroskirekin elkarlanean. Atzo hasi zen, eta, urtea amaitzerako, mila liburu inguru herritarren eskura jartzea espero dute (%30 euskaraz). *Liburu bidaiaria* hartu du izena ekimenak.

Bookcrossing-a 2001eko apirilaren 17an sortu zen, Ameriketako Estatu Batuetan, Ron Hornbaker informatika programatzaile gaztearen eskutik. Ideiaren funtsa liburuak trukatzeari zen, eta zaleek ez zuten hutsik egin: egun, mundu osoko 416.000 pertsona eta 2,5 milioi liburu baino gehiago daude erregistratuta webgune nagusian (www.bookcrossing.com). Gaztelaniazko sarrera ere bada: www.bookcrossing-spain.com.

'Irakur eta aska nazazu' etiketa urdinarekin

Gasteizko eskaintzaren berri eman zuten atzo Kultura zinegotzi Encina Serranok eta El Boulevard saltoki guneko gerente Pablo Vivancosek eta zuzendariorde Amaia Castillok. «Irakurtzeko zaletasuna bultzatu nahi dugu liburuak doan partekatuz. Helburua da Gasteiz li-



ETIKETA URDIN BAT dute bereizgarri egunotan Gasteizen banatuko dituzten liburuak. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

burutegi erraldoia bihurtzea», adierazi zuen Vivancosek.

Jendeak ez du zalantzarik zertan izan. Liburuak formatu txikikoak dira, eta, azalean *Irakur eta aska nazazu* etiketa urdina daukate; barruan, berriz, ale bakoitzaren kodea dago. Izan ere, irakurleak webgunean erregistratu behar du mugimendua, eta, hala, liburuaren bidaiaren nondik norakoak jakiteko aukera izango da. Hala, obrari buruzko iritzia emateko aukera dauka.

Vivancosen esanetan, liburuak jasotzen duenak lau gauza egin behar izaten ditu: «Liburuak ira-

kurri, erregistratu eta askatu... Eta, jakina, pixka bat zaindu ere bai...».

Saltoki guneko arduradunak ez ditu kezkatzen sistema honek liburuak eskuratzeko aukera emateak ezer pagatu behar izan gabe. Gogoan dute *bookcrossing* ideia bultzatzaileen azalpena: «Jendea liburuak partekatzea animatzeak balio bitxia duela ikusi dugu: webgunean agertzen diren kritikei zein iruzkinei jarraiki liburuak erosten dituztenen kopurua eta doan topatzen dituztenena parekatuz gero, askoz ere gehiago dira erosleak besteak baino.

Webgune honekin inork ez du aurreztuko. Izan ere, gure kide-etako asko liburuak bi ale erosten hasiak dira batekin geratu eta bestea askatzeko asmoz». Era berean, egileei beraiei ere obrak zabaltzeko ahal izateko «oso lagungarri» gerta dakiekeela uste dute.

Liburuak trukatzeko ideia Euskal Herrian barrena zabaltzeko da azken bolada honetan. Donostiako Udalak iazko apirilean abiatu zuen, eta gero, Aste Nagusian, zenbait ekintza egin ziren *bookcrossing*-a sustatzeko asmotan. Orain Gasteizko irakurzaileen txanda da.